



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua  
Servicio de Viticultura y Enología

## **PRENTSA OHARRA: ZER EGOERA DUTEN MAHASTIEK ARABAKO ERRIOXAN 2018/07/30EAN**

Guardiako Ardoaren Etxeko teknikariak aztertzen ari dira zer bilakaera izaten ari den gorrina eskualdean; gorrina onddoek eragindako gaixotasun bat da, eta mahastiaren osasunari eragiten dio, eta, aurten, azken asteetako euri jasa handien ondoren tenperatura handiak izan direlarik, bortizki ari da mahatsondoei eragiten. Bisita horiei esker, teknikariek egiaztatu ahal izan dute ezen, heltze prozesua egokia den arren, orrietan gorrinaren orbanak hauteman ahal direla mahastietako askotan, eta mahats mordoei ere eragiten ari zaiela, batez ere ekaitz eta kazkabarrak bortizkien erasan dituzten guneeetan.

Azken asteetako euriteen neurria eta jarraitasuna dela-eta, zailagoa izan da lursailtako batzuetara sartzea produktu espezifikoekiko tratamendua emateko, eta, hori dela-eta, eritasunaren eragina handiagoa izan da mahasti horietan. Aurre egin eta osasun egoera onenari eustearren, beharrezkoa ari da izaten tratamendu fitosanitarioetan gastu handiagoa egitea, eta, eguraldia nolakoa, eutsi egin beharko zaio gastu horri, edo ez.

Mahastiaren eboluzioaren une honetan, mahastizainak oso adi dagozkio fenomeno horri, eta gomendatzen ari dira sistematikoki ematea kobrea bezalako produktu espezifikoak, zeina beti erabili baita eskualdeko nekazaritzan. Tratamendu hori mahastizaintza ekologikoan ere onartua da, eta babestu egiten ditu mahats mordoak orrietatik datozen esporetatik, eta gerarazi egiten du eritasuna. Mahastizainen ezagutza, profesionaltasuna eta dedikazioa medio, zailtasunak zailtasun, eragotzi egingo da eritasuna heda dadin, eta are mahastia bere oneratzen lagundu ere, nahiz eta, neurri handi batean, hori datozen egunotako eguraldiaren eta hezetasun erlatiboaren arabera izango den.

Guardia, 2018ko uztailaren 30a.  
Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua